

Donostia, 2017ko ekainaren 27an

Diputatuen kongresuko PSOE talde agurgarria:

Datorren ekainaren 29an, Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko Ekonomia eta Merkataritza Itunaren (CETA) berrespenerako bozketa egingo da Diputatuen Kongresuan eta hainbat mugimendu sozialez, taldez zein erakundez osaturiko Gipuzkoako CETA / TTIP Ez kanpainatik, herritarron eskubideen alde berrespenean ezezkoa bozkatea eskatzen dizuegu.

Negoziazioen prozesu luzean eta aztertze legalean zehar, behin eta berriz seinalatu dugu CETAREN testuan arazo ugari aurkitzen ditugula. Hori dela eta, “sí es sí” (“bai da bai”) diozuen bezala, “no es no” (“ez da ez”) diogu guk. Ez deritzogu nahikoa abstenitzearekin eta ezinbestekoa da “Por una nueva socialdemocracia” (“Sozialdemokrazia berri baten alde”) esatean, CETARI ezezko borobila ematea.

Gure kontrako arrazoiak Atlantikoko bi aldetara dauden pertsona kopuruaren igoerarekin partekatzen dira. Europa guztiko 3,5 milioi pertsonak, benetako errekorra, sinatu zuten CETA eta bere bikia den Komertzio eta Inbertsioen Itun Transatlantikoaren (TTIP) aurka. 2.300 herrialde eta udal gobernu baino gehiago CETA eta TTIPren aurkako lurralde aske agertu dira. Alemanian eta Kanadan zalantzan jartze konstituzionalak atera dira eta baliteke Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak aztertu eta erabakitzea CETAN kanpoko inbertitzaileen pribilegio polemikoari buruz.

Eztabaida egon arren, gobernu kanadarra eta instituzio europarrak CETAREN berrespena azkartzen dabilta. Kanadan, amaierako tratatuari buruz edozein kontsulta egiteko denborarik utzi gabe, hitzarmena indarrean jartzea baimentzen duen legedia sartu zen. Hala ere, badirudi oraindik ez dela martxan jarri. Europako Parlamentuak ere barne kontsulten prozesuak murriztu nahi izan ditu eta beraz, CETAREN 1.600 orriko testuaren berrespenaren eztabaida mugatu. Gauza bera gertatzen ari da espainiar Gobernuan.

Hitzarmenak sinatu zen bezala dakarzkigun oinarritzko kezka batzuk azpimarratu nahiko genituzke:

- CETAK, milaka korporazioei, herritarren zein planetaren babeserako diskriminatzaileak ez diren eta neurri legitimoak buruz gobernuari auzitara eramateko aukera bideratzen die. Hitzarmeneko edo gehitutako adierazpenetako ezerk ez liekete korporazioei geraraziko interes publikorako erregulazioez (adibidez, klima aldaketa) aldentzeko gobernuari izutzeko CETAK aurreikusten dituen inbertitzaileen eskubideez. Gainera, politikaren baten aldaketak inbertitzailearen bati eragingo balio, CETAK atak irekita uzten dizkie korporazioei burutu gabeko irabaziengatik konpentsatu ahal izateko. ISDS (Investor-State Dispute Settlements) <erradikalki> eraberritetik urrun, hau da, inbertitzaile-Estatu arteko gatazken ebazpenerako sistema CETAK zabaldu eta sustraitu egiten du.

- CETAKO ICSK inbertitzaileentzat beharrezkoak ez diren eskubideak bermatzen ditu baina **ez dizkie bermatzen dagozkien betebeharrak**. Herritarrei, elkarteei edo

sindikatuiei ez die baimentzen ingurumen, lan, osasun, segurtasun eta beste hainbat arau hausten dituzten konpainiei auzitara eramaten. Inbertitzaileei existitzen den auzitegiez saihestea baimentzen dien **sistema legal paraleloa** litzateke eta komunitatearen eskubideekin bateraezina da. ICS diskriminatzailea da zeren **atzerriko inbertitzaileei bermatzen dizkien eskubideak, ez dizkie bermatzen ez herritarrei ezta inbertitzaile nazionaleri ere.**

- Korporazioen eskubideen kontraste argi batean, **langileen eskubideei eta garapen jasangarriari dagokien CETAREN aurreikuspenetan, ezin dira santzio bidez eraginkorki indartuak izan.** Hitzarmeneko beste kapitulu batzuk dituzten arriskuak kontutan hartu gabe deklarazio huts bezala geratzen dira, hau da, langileen eskubideei, ingurumenari eta klima aldaketari aurre egiteko neurriei kalte egiten dietenak.

- **Zerbitzu publikoak sortu, zabaldu zein erregulatzeko eta porrot egindako liberalizazio zein pribatizazioen berreskurapenerako gobernuen gaitasuna serioki mugatzen du** CETAk. Europar Batasunean araua zerbitzuen liberalizaziotik eta salbuespena interes publikoko erregulaziotik egiten duen lehen hitzarmena da. Honek herritarrei kalitate altuko zerbitzuak eskuratu ahal izatea, hau da, ura, garraioa, osasun eta asistentzia soziala zein interes publikorako helburua duten beste hainbat zerbitzu eduki ahal izatea mehatxatzen du.

- CETAREN inpaktu ekonomikoen ikerlan independente baten aurreikuspenen arabera, Europar Batasunean zein Kanadan **lanpostuak galduko dira, hitzarmenarekin hazkunde ekonomikoa mantoagoa izango da** eta sarreraren irabazi txikiak bereziki kapitaldunengana joango lirateke eta ez langileengana. Ondorioz, desberdintasunak areagotuko lirateke.

- CETAk merkatu finantzarioen liberalizazio handiagoa ekarriko luke eta honek, Kanada zein Europar Batasuna krisiarekiko ahulagoak izatea dakar. Era berean, finantzen ezegonkortasuna ezabatzea eta kontsumitzaileei zein ekonomiari orokorrean babes hobea ziurtatzea helburu duten erreformak murriztuko lituzke.

- CETAk **sendagaien preskripzioaren gastuak igo ditzake** gutxienez 858 dolar kanadar urteko (583 milioi euro). Era berean, pribatutasun eta datuen **babeserako eskubidea bezalako oinarrizko eskubideetan negatiboko eragingo luke** eta patenteen gehiegikeria murrizteko (propietate intelektualaren eskubideak) Europar Batasunaren zein Kanadaren gaitasuna mugatzen du. Honekin batera, **jakintzara eta berrikuntzara sarrera mugatzen du.** CETAKo propietate intelektualaren eskubide batzuk ACTAREN (Anti-Counterfeiting Trade Agreement) testuaren antza handia dute, zein, patenteak eta propietate intelektualak babesteko antifalsifikaziorako merkataritza hitzarmena den eta Europako Parlamentuak gaitzetsi zuen.

- CETAKo kooperazio erregulatzaileari eta erregulazio nazionaleri buruzko arauak trabak jarriko dizkie erregulazio gehigarriei eta korporazioetako lobbien papera indartuko luke politiken lantze prozesuan; eta **hain beharrezkoak diren interes publikoko politikak potentzialki ahultzen.**

- Atlantikoko bi aldetan, CETAK nekazariei beraien bizitzeko era hondatuko lieke presio konpetitiboak izanik, kontsumitzaileen benefizio txiki batengatik: hazien kontrola

handiagotuko litzateke, elikagai lokalen erosketaren politika suntsituko luke, ekoizpen estandarrak zein elikagaien prozesamendua mehatxatuko lituzke; **honela nekazaritza jasangarria bultzatzeko egin diren esfortzu guztiak deuseztatuz.**

• **Kontsumitzaileei, osasun publikoari eta ingurumenari babesteko arreta neurriak desafiatuak izan daitezke** CETArengatik hainbat adierazpenetan oinarriturik; bakarrik neurri neketsuak direla, ez dutela oinarri zientifikorik eta komertzioari simulatutako hesiak izan daitezke. Ez CETAREN testuan ezta gehitutako adierazpenean ere ez du ezerk Europako politika erregulatzailerako arreta printzipioa betetzen babesten, non, bitartean atal batzuek zuzenean gatazken printzipioez hitz egiten duten.

Eskatzen dugu:

- Herritarren eskubideak defendatuz, Kongresuko Diputatuek CETAREN berrespenean ezezkoa bozkatzea.
- Informazio eta eztabaida publikorako denboraldia zabaltzea.
- Merkataritza politika berri, justu eta jasangarria oinarri duen kontsulta osatu eta demokratikoa egiten hastea, jendartea parte izanik.

Gauzak nola dauden ikusita, CETA ezartzea akats larri bat litzateke. Multinazional handienentzat diseinaturiko merkataritza libreko politika zaharrak baino oraindik eta intrusiboagoa da. Herritarren eta planetaren beharretan oinarrituko litzatekeen merkataritza politika garden batetara bideratuko gaituen aldaketa bat behar dugu. Beharrezkoa zaigun aldaketa horretatik oso urrutira eramango gaitu CETAREN berrespenak.

Adeitasunez,



Gipuzkoako CETA / TTIP Ez kanpaina

gipuzkoakottipez@gmail.com